

*Diputatuen Kontseiluaren Erabakiak***OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA**

6635

**623/2011 ERABAKIA, azaroaren 15eko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, behin betiko onartzen da Barrundiako udalerriko Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari lotutako lurzoruen eta hiri ondasun higiezinaren (eraikinak) balioespen txostenaren eranskina. Eranskin horretan Elgeako eta Elgea-Urkillako parke eolikoak balioztatzeko irizpideak ere jasotzen dira.**

Irailaren 29ko 555/2011 Foru Aginduaren bitartez, behin-behineko izaeraz onartu zen Barrundiako udalerriko Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari lotutako ondasun higiezin berezien lurzoruen eta eraikuntzen balioespen txostenaren eranskina. Eranskin horretan "Elgea" eta "Elgea-Urkillak" parke eolikoak -azken hau, aipatutako udalerrian dagoen aldean- balioesteko irizpideak jasotzen dira.

Aipatutako lege araudiaren xedatze zatiko 2. artikuluan, Barrundiako Udalari haren berri emateko agindua eman zen. Agindu hori 2011ko urriaren 3an bete zen eta Barrundiako Udalak 2011ko urriaren 7an jaso zuen jakinarazpena.

Uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauak, Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duenak, 11. artikuluko 4. paragrafoaren bidez, udalari hamabost egun ematen dizkio egoki deritzona adieraz dezan.

Esandako epea igarota, Barrundiako Udalak ez du inolako desadostasunik adierazi hartutako erabakiarekin.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren proposamenez, Diputatuen Kontseiluak gaia gaur bertan egindako bilkuran aztertu eta gero, hona hemen,

**ERABAKI DUT**

Lehenengoa.- Behin betiko onartzea Barrundiako udalerriko Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari lotutako ondasun higiezin berezien lurzoruen eta eraikuntzen balioespen txostenaren eranskina. Eranskin horretan "Elgea" eta "Elgea-Urkillak" parke eolikoak -azken hau, aipatutako udalerrian dagoen aldean- balioesteko irizpideak jasotzen dira.

Bigarrena.- Erabaki hau ALHAOn argitaratuko da. Txostena zabaltea Barrundiako Udalari dagokio, eta horretarako beharrezko ediktua argitaratu dituzte, Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauak 11. artikuluko 6. paragrafoan eta hori garatzen duen arategiak ezartzen dutenarekin bat etorritik. Arautegi hori abenduaren 15eko Diputatuen Kontseiluaren 1080/1992 Foru Dekretuaren 15. artikuluko arautu zuen.

Hirugarrena.- Balioespen txostenaren aldaketa argitaratu ondoren, ateratzen diren katastro balioak banan-banan jakinaraziko zaizkio subjektu pasibo bakoitzari, balioak indarrean sartu aurre-aurreko urtea amaitu baino lehen, horixe agintzen baitu abenduaren 15eko Diputatuen Kontseiluak Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen uztailaren 19ko 42/1989 Foru Araua garatzeko eman zuen 1080/1992 Foru Dekretuak 17. artikuluan.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko azaroaren 15a.- Diputatu nagusia, JAVIER DE ANDRÉS GUERRA.- Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua, JOSÉ ZURITA LAGUNA.- Ogasun zuzendaria, JUAN IGNACIO MARTÍNEZ ALONSO.

**BARRUNDIAKO PARKE EOLIKOETAKO BALIOEN TXOSTENA**

Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauak bere 3. artikuluko 4. paragrafoan xedatzen duenez, ondasun higiezin bereziak dira energia elektrikoa ekoizten duten ondasun higiezinak, esate baterako parke eolikoak.

*Acuerdos del Consejo de Diputados***DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS**

6635

**ACUERDO 623/2011, del Consejo de Diputados de 15 de noviembre, que aprueba definitivamente el anexo de la Ponencia de Valoración del suelo y construcciones de los bienes inmuebles de características especiales sujetos al Impuesto sobre Bienes Inmuebles, realizada para el término municipal de Barrundia, incluyendo en la misma los criterios valorativos de los Parques Eólicos de "Elgea" y "Elgea-Urkillak".**

Por Orden Foral nº 555/2011, de 29 de septiembre, se aprobó con carácter provisional, el Anexo de la Ponencia de Valoración de Suelo y Construcciones de los bienes inmuebles de características especiales sujetos al Impuesto sobre Bienes Inmuebles del término municipal de Barrundia, incluyendo en el mismo los criterios valorativos de los Parques Eólicos de "Elgea" y "Elgea-Urkillak" éste último en la parte situada en el citado término municipal.

En el artículo 2º de la parte dispositiva de la referida normativa legal, se ordenaba su comunicación al Ayuntamiento de Barrundia, disposición que se realizó con fecha 3 de octubre de 2011, siendo recepcionada por el Ayuntamiento de Barrundia, con fecha 7 de octubre de 2011.

La Norma Foral nº 42/1989, de 19 de julio, reguladora del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, dispone en su artículo 11 apartado 4º, el plazo de audiencia al Ayuntamiento respectivo, cifrándolo en quince días, para que informe lo que estime oportuno.

Habiendo transcurrido el plazo indicado el Ayuntamiento de Barrundia no ha manifestado disconformidad alguna con la resolución adoptada.

En su virtud, a propuesta del Diputado Foral titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, previa deliberación del Consejo de Diputados, en sesión celebrada por el mismo, en el día de hoy,

**ACUERDO**

Primero.- Aprobar definitivamente el Anexo de la Ponencia de Valoración del suelo y construcciones de los bienes inmuebles de características especiales sujetos al Impuesto sobre Bienes Inmuebles, realizada para el término municipal de Barrundia, incluyendo en la misma los criterios valorativos de los Parques Eólicos de "Elgea" y "Elgea-Urkillak", éste último en la parte situada en el citado término municipal.

Segundo.- El presente Acuerdo será publicado en el BOTHERA, correspondiendo al Ayuntamiento de Barrundia dar la debida publicidad al mismo, mediante la publicación de los correspondientes edictos, tal y como establecen por un lado el artículo 11 apartado 6º de la Norma Foral nº 42/1989, de 19 de julio, reguladora del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, como su posterior desarrollo reglamentario Decreto Foral nº 1080/1992, del Consejo de Diputados de 15 de diciembre, en su artículo 15.

Tercero.- A partir de la publicación de la modificación de la Ponencia de Valoración, los valores catastrales resultantes deberán ser notificados individualmente a cada sujeto pasivo antes de la finalización del año inmediatamente anterior a aquel en que deban surtir efecto los mismos, de conformidad con lo establecido en el Decreto Foral nº 1080/1992, del Consejo de Diputados de 15 de diciembre en su artículo 17 y que sirve de desarrollo reglamentario a la Norma Foral nº 42/1989, de 19 de julio, reguladora del Impuesto sobre Bienes Inmuebles.

En Vitoria-Gasteiz, a 15 de noviembre de 2011.- Diputado General, JAVIER DE ANDRÉS GUERRA.- Diputado Foral de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JOSÉ ZURITA LAGUNA.- Director de Hacienda, JUAN IGNACIO MARTÍNEZ ALONSO.

**PONENCIA DE VALORES DE LOS PARQUES EÓLICOS DE BARRUNDIA**

La Norma Foral 42/1989, de 19 de julio, reguladora del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, en su artículo 3º, apartado 4º) dispone que los bienes inmuebles destinados a la producción de energía eléctrica como los parques eólicos, son bienes inmuebles de características especiales.

55/2011 Foru Dekretuak, irailaren 13ko Diputatuen Kontseiluarenak, ezaugarri bereziak dituzten ondasun higiezinaren katastro balioespenerako arauak onartu zituen. Dekretu horrek bere 2. artikuluan xedatzen du mota horretako ondasun higiezinaren katastro balioa lurzoruaren balioaren eta eraikuntzen balioaren batuketatik ateratakoa dela. Era berean, lege xedapen beraren 3. eta 4. artikuluetan, xedatzen da mota horretako ondasun higiezinaren berezien lurzorua eta eraikuntzak balioesteko irizpideak dagozkien balioespen txostenetan finkatuta egongo direla.

Balioespen Txosten hau egitearen helburua, horren barruan "Elgea" eta "Elgea-Urkilla" parke eolikoetako ondasun higiezinaren balioespen berezia jasotzea da, bi parke horiek Arabako eta Gipuzkoako lurralde historikoetan eragina dutelarik. Arabaren barruan, "Elgea" parke eolikoak Barrundiako udal barrutian du eragina, eta "Elgea-Urkilla" parke eolikoak Barrundiako eta Donemiliagako udal barrutietan du eragina. Balioespen Txosten honetako 500 eta 501 zk.ko poligono fiskalak esleituko dira. Txosten horiek, aipatu parkeetako bakoitza osorik osatzen duten eraikuntzetako bakoitzaren balioa jasoko du.

Lurzoruaren katastro balioa, Barrundiako udal barrutiko hiri lurzortutik edo lurzoru sakabanatutik kanpo dauden gainerako eraikuntzetarako bezalaxe kalkulatu da, Diputatuen Kontseiluaren urriaren 27ko 6820/2009 Erabakiaren bitartez onartu zen hiri ondasun higiezinaren Lurzoruaren eta Eraikuntzen Balioespen Txostenean xedatutakoa oinarri hartuz. Lotutako lurzoruak bakar-bakarrik eraikuntzek eta bide eta urbanizazio lanek okupatutako azalera hartuko du barne. Ez da holakotzat hartuko parkearen eragin eremua, aplikatu beharreko arautegiak ohiko nekazaritza erabilerarekin jarraitzea baimentzen baitu.

Poligono fiskal hauetako eraikuntzei esleitutako balioa era berezian kalkulatu da, Diputatuen Kontseiluaren irailaren 13ko 55/2011 Foru Dekretuak bere 4. artikuluan, 5) idatz zatian xedatutakoarekin bat etorriz. Izan ere, eraikuntza bereziak dira, identifikatu ezin daitezkeenak urtarrilaren 18ko 2/1994 Foru Dekretuak (hiri ondasun higiezinaren balioesteko arau teknikoak eta lurzoruaren eta eraikuntzen balioen taula markoa onartu zituenak) definitutako inolako eraikuntza tipologiarekin.

Balioespen espezifikoa, "Elgea" eta "Elgea-Urkilla" parke eolikoaren kasuan, higiezin merkatutik kanpoko datuetan oinarritu beharko da, hau da, beste prozedura batzuetatik lortutako datuetan, higiezin merkatu horretara heltzen ez diren ondasun higiezinaren direlako. Ezaugarri bereziak dituzten ondasun higiezinaren katastro balioa kalkulatzeko erabilitako datuak, Barrundiako Udalean eskuratutako eta kontsultatutako eta Eólicas de Euskadi S.A. enpresak bertan aurkeztutako obrak gauzatzeko proiektuetatik eta dagozkien obra amaierako ziurtapenetatik atera dira.

#### ELGEAKO MENDIETAKO PARKE EOLIKOAREN KATASTRO BALIOESPEN ESPEZIFIKOA, BARRUNDIAKO UDAL BARRUTIARI DAGOKIONA

Elgeako parke eolicoa, orotara, 40 aerosorgailuk osatzen dute. Arabako Lurralde Historikoaren eta Gipuzkoako Lurralde Historikoaren mendelurretan instalatuta daude, eta Arabako Lurralde Historikoaren daudenak Barrundiako udal barrutiari dagozkio. Daukagu 28 aerosorgailu direla Barrundiako udal barruti horretan instalatuta daudenak, horiek zerrendatzen dituen Barrundiako Udalaren beraren idazkiak diotenaren arabera. 28 aerosorgailu hauetako bakoitzak 660 Kw-ko potentzia du eta, txosten honen ondorioetarako, Barrundiako udalerriri eragiten dion eraikuntzaren katastro balioespeneko unitate bezala, orotara, 28 aerosorgailuak hartu dira, udalerriri horretan egindako instalazio eta obra zibil guztiekin, eraikuntzaren katastro balioa hauek guztiek osatzen dutelarik: makina, aparatu edo tresna kontzeptuarekin ez baizik eta ondasun higiezin edo eraikin kontzeptuarekin parekatu daitezkeen merkataritza edo industria instalazio eta obrak.

El Decreto Foral 55/2011, del Consejo de Diputados de 13 de septiembre, que aprueba las Normas de valoración catastral de los bienes inmuebles de características especiales, dispone en su artículo 2º que el valor catastral de esta tipología de bienes inmuebles está constituido por la suma del valor del suelo y el valor de las construcciones. Asimismo los artículos 3º y 4º de la misma disposición legal regulan que los criterios de valoración del suelo y de las construcciones de este tipo especial de bienes inmuebles estarán establecidos en las correspondientes Ponencias de Valoración.

Esta Ponencia de Valoración se realiza al objeto de incluir en la misma la valoración singular de los bienes inmuebles de los Parques Eólicos de "Elgea" y de "Elgea-Urkilla", afectando ambos Parques a los Territorios Históricos de Álava y de Gipuzkoa. Dentro de Álava, el Parque Eólico de "Elgea" afecta únicamente al término municipal de Barrundia y el Parque Eólico de "Elgea-Urkilla" afecta a los términos municipales de Barrundia y San Millán. Se asignarán los Polígonos Fiscales nº 500 y nº 501 de ésta Ponencia de Valoración, que contendrán el valor de cada una de las construcciones que componen la totalidad de cada uno de los citados Parques.

El valor catastral del suelo se calculará exactamente igual que para el resto de construcciones situadas fuera del suelo urbano o diseminado del término municipal de Barrundia, en base a lo dispuesto en la Ponencia de Valoración de Suelo y Construcciones de bienes inmuebles urbanos aprobada por Acuerdo nº 682/2009 del Consejo de Diputados del 27 de octubre. El suelo sujeto comprenderá exclusivamente la superficie ocupada por las construcciones y las obras de caminos y de urbanización, no considerándose como tal la zona de influencia del Parque al permitir la normativa de aplicación el mantenimiento del uso agrario habitual.

El valor asignado a las construcciones en estos Polígonos Fiscales se calculará de manera singularizada, de conformidad a lo dispuesto en el artículo 4, apartado 5) del Decreto Foral nº 55/2011, del Consejo de Diputados de 13 de septiembre, ya que se trata de construcciones singulares que no pueden identificarse con ninguna de las tipologías constructivas definidas en el Decreto Foral nº 2/1994, de 18 de enero, por el que se aprueban las Normas Técnicas de Valoración y el Cuadro Marco de valores de suelo y construcciones de los bienes inmuebles de naturaleza urbana.

La valoración específica en el caso de los Parques Eólicos de "Elgea" y de "Elgea-Urkilla", deberá basarse en datos ajenos al mercado inmobiliario, es decir en datos obtenidos por otros procedimientos, debido a que se trata de bienes inmuebles que no acceden a dicho mercado inmobiliario. Los datos a partir de los cuales se obtiene el valor catastral de los referenciados bienes inmuebles de características especiales, provienen de los Proyectos de ejecución de obras y de sus correspondientes Certificaciones finales de obra facilitados y consultados en el Ayuntamiento de Barrundia y presentados, en el mismo, por la empresa Eólicas de Euskadi, S.A.

#### VALORACIÓN CATASTRAL ESPECÍFICA DEL PARQUE EÓLICO DE LA SIERRA DE ELGEA, CORRESPONDIENTE AL TÉRMINO MUNICIPAL DE BARRUNDIA

El Parque Eólico de Elgea se compone en total de 40 aerogeneradores, instalados en la jurisdicción del Territorio Histórico de Álava y del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y perteneciendo los situados en el Territorio Histórico de Álava al término municipal de Barrundia. Estimamos que son 28 aerogeneradores los instalados en dicho término municipal de Barrundia, según escrito del propio Ayuntamiento de Barrundia que los relaciona, disponiendo cada uno de estos 28 aerogeneradores de una potencia de 660 Kw; y considerando a los efectos de la presente Ponencia, como unidad de valoración catastral de construcción total y que afecta al Ayuntamiento de Barrundia, los 28 aerogeneradores con todas las instalaciones y obra civil realizadas en dicho Ayuntamiento, integrando el valor catastral de la construcción todas las obras e instalaciones comerciales o industriales que sean asimilables al concepto de bien inmueble o edificio y no al de máquinas, aparatos o artefactos.

ELGEAKO MENDIETAKO PARKE EOLIKOAREN  
BALIOESPENA (BARRUNDIA)

KAPITULUA	DESKRIBAPENA	ZENBATEKOA
1.- Obra zibila	Sarbideak eta plataformak (guztiaren ehuneko 100) Dorreen zimenduak (guztiaren ehuneko 100) Ingurumenaren leheneratzea (guztiaren ehuneko 100)	316.933,39 euro 555.013,56 euro 135.164,68 euro
	<b>OBRA ZIBILA GUZTIRA</b>	<b>1.007.111,63 euro</b>
2.- Instalazioak	T. ertaineko kanalizazioa (guztiaren ehuneko 100) Transformazio azpigunea (guztiaren ehuneko 100) Gasteiz-Itxaso 220 Kw-ko linearen aldakuntza (guztiaren ehuneko 100)	214.587,71 euro 417.703,41 euro 19.553,03 euro
	<b>INSTALAZIOAK GUZTIRA</b>	<b>651.844,15 euro</b>
3.- Aerosorgailuak	Aerosorgailuak (guztiaren ehuneko 25) Muntatzea eta puntuan jartzea (guztiaren ehuneko 25)	2.524.250,82 euro 168.283,39 euro
	<b>AEROSORGAILUAK GUZTIRA</b>	<b>2.692.534,21 euro</b>
<b>28 AEROSORGAILUAK BARRUNDIAN, GUZTIRA</b>		<b>4.351.489,99 euro</b>

Barrundiako udal barrutian eragina duen eraikuntza kostu osoari, merkatuarekiko erreferentziako 0,70 zuzentze koefizientea aplikatuko zaio. Horrenbestez, eraikuntzaren katastro balio osoa, zeina ezin daitekeen murriztu inolako zuzentze koefizientez, hala nola antzina-tasunekoaz edo erabilerakoaz, ondokoa da:

POLIGONO FISKALA	PARKE EOLIKOA	ERAIKUNTZAREN KATASTRO BALIOA
500	Elgeako mendiak	3.046.042,99 euro

Barrundiako udal barrutian dagoen Elgeako mendietako parke eolikoaren katastro balio osoa, bi hauen batura izango da: eraikuntzaren katastro balioa, hemen kalkulatu, gehi lurzoruaren katastro balioa, udal barruti horretarako dagoen hiri ondasun higiezin lurzoruaren eta eraikuntzen Balioespen Txostenean oinarrituz kalkulatu.

ELGEA-URKILLAKO PARKE EOLIKOAREN KATASTRO  
BALIOESPEN ESPEZIFIKOA, BARRUNDIAKO  
UDAL BARRUTIARI DAGOKIONA

Elgea-Urkillako parke eolika, orotara, 38 aerosorgailuak osatzen dute, horietako bakoitzak 850 Kw-ko potentzia duelarik. Arabako Lurralde Historikoaren eta Gipuzkoako Lurralde Historikoaren artean banatutako lur eremu batean instalatuta daude.

Arabako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluaren 268/2003 Erabakiak, maiatzaren 6koak, "Eólicas de Euskadi, S.A." enpresari mendi publikoak okupatzeko baimena eman zion, Barrundiako eta Donemiliagako udal barrutietan, Arabako Lurralde Historikoan, parke eolika eraikitze eta eraikitze helburuaz. Erabaki hori oinarri hartuz, zehaztu da 19 aerosorgailuetatik ehuneko 25,15 Barrundiako Udalari dagozkiola eta gainerakoak, hau da, ehuneko 74,85, Donemiliagako Udalari, eta, txosten honen ondorioetarako, Donemiliagako Udalerrinari eragiten dion eraikuntzaren katastro balioespeneko unitate bezala, orotara, 19 aerosorgailuetatik ehuneko 25,15 hartu da, udalerriri horretan egindako instalazio eta obra zibil guztiekin, eraikuntza bezala honako hauek guztiak hartuta: makina, aparatu edo tresna kontzeptuarekin ez baizik eta ondasun higiezin edo eraikin kontzeptuarekin parekatu daitezkeen merkataritza edo industria instalazio eta obrak

ELGEA-URKILLAKO PARKE EOLIKOAREN BALIOESPENA,  
BARRUNDIAN

KAPITULUA	DESKRIBAPENA	ZENBATEKOA
1.- Obra zibila	Sarbideak eta plataformak (guztiaren ehuneko 100) Dorreen zimenduak (guztiaren ehuneko 100)	58.658,60 euro 187.845,69 euro
	<b>OBRA ZIBILA GUZTIRA</b>	<b>246.504,29 euro</b>
2.- Instalazioak	T. ertaineko kanalizazioa (guztiaren ehuneko 100)	94.269,51 euro
	<b>INSTALAZIOAK GUZTIRA</b>	<b>94.269,51 euro</b>
3.- Aerosorgailuak	19 aerosorgailuetatik ehuneko 25,15 (guztiaren ehuneko 25) Muntatzea eta puntuan jartzea (guztiaren ehuneko 25)	542.077,99 euro 33.806,94 euro
	<b>AEROSORGAILUAK GUZTIRA</b>	<b>575.884,93 euro</b>
<b>19 AEROSORGAILUETATIK ehuneko 25,15 BARRUNDIAN, GUZTIRA</b>		<b>916.658,73 euro</b>

VALORACIÓN PARQUE EÓLICO DE LA SIERRA DE  
ELGEA, EN BARRUNDIA

CAPÍTULO	DESCRIPCIÓN	IMPORTE
1.- Obra Civil	Accesos y plataformas (100 por cien del total) Cimentaciones de torres (100 por cien del total) Restauración medioambiental (100 por cien del total)	316.933,39 euros 555.013,56 euros 135.164,68 euros
	<b>TOTAL OBRA CIVIL</b>	<b>1.007.111,63 euros</b>
2.- Instalaciones	Canalización de Media T. (100 por cien del total) Subestación transformadora (100 por cien del total) Modificación línea 220 Kw, Vitoria-Itxaso (100 por cien del total)	214.587,71 euro 417.703,41 euros 19.553,03 euros
	<b>TOTAL INSTALACIONES</b>	<b>651.844,15 euros</b>
3.- Aerogeneradores	Aerogeneradores (25 por ciento del total) Montaje y puesta a punto (25 por ciento del total)	2.524.250,82 euros 168.283,39 euros
	<b>TOTAL AEROGENERADORES</b>	<b>2.692.534,21 euros</b>
<b>TOTAL 28 AEROGENERADORES EN BARRUNDIA</b>		<b>4.351.489,99 euros</b>

Al coste de construcción total que afecta al término municipal de Barrundia se le aplicará el coeficiente corrector 0,70 de referencia al mercado, con lo que el valor catastral total de construcción, el cual no podrá reducirse por ningún coeficiente corrector como es el de la antigüedad o el uso, es de:

POLÍGONO FISCAL	PARQUE EÓLICO	VALOR CATASTRAL CONSTRUCCIÓN
500	Sierra de Elgea	3.046.042,99 euros

El valor catastral total del Parque Eólico de la Sierra de Elgea, sito en el término municipal de Barrundia, será la suma del valor catastral de la construcción aquí calculado, más el valor catastral del suelo calculado en base a la Ponencia de Valoración de suelo y construcción de bienes inmuebles urbanos, existente para este término municipal.

VALORACIÓN CATASTRAL ESPECÍFICA DEL PARQUE EÓLICO  
DE ELGEA-URKILLA, CORRESPONDIENTE AL TÉRMINO  
MUNICIPAL DE BARRUNDIA

El Parque Eólico de Elgea-Urkilla se compone en total de 38 aerogeneradores, disponiendo cada uno de ellos de una potencia de 850 Kw., estando instalados a caballo entre la jurisdicción del Territorio Histórico de Álava y la del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

En base al Acuerdo 368/2003 del Consejo de Diputados de la Diputación Foral de Álava de 6 de mayo, que autoriza a "Eólicas de Euskadi S.A." a la ocupación de montes públicos con la finalidad de la construcción y explotación del Parque Eólico en los términos municipales de Barrundia y San Millán, en el Territorio Histórico de Álava, se determina que el 25,15 por ciento de los 19 aerogeneradores pertenecen al Ayuntamiento de Barrundia y el resto, 74,85 por ciento al Ayuntamiento de San Millán, y considerando a los efectos de la presente Ponencia, como unidad de valoración catastral de construcción total y que afecta al Ayuntamiento de Barrundia, el 25,15 por ciento de los 19 aerogeneradores con todas las instalaciones y obra civil realizadas en dicho Ayuntamiento, considerándose como construcción todas las obras e instalaciones comerciales o industriales que sean asimilables al concepto de bien inmueble o edificio y no al de máquinas, aparatos o artefactos.

VALORACIÓN DEL PARQUE EÓLICO DE ELGEA-URKILLA,  
EN BARRUNDIA

CAPÍTULO	DESCRIPCIÓN	IMPORTE
1.- Obra Civil	Accesos y plataformas (100 por cien del total) Cimentaciones de torres (100 por cien del total)	58.658,60 euros 187.845,69 euros
	<b>TOTAL OBRA CIVIL</b>	<b>246.504,29 euros</b>
2.- Instalaciones	Canalización de Media T. (100 por cien del total)	94.269,51 euros
	<b>TOTAL INSTALACIONES</b>	<b>94.269,51 euros</b>
3.- Aerogeneradores	El 25,15 por ciento de 19 aerogeneradores (25 por ciento del total) Montaje y puesta a punto (25 por ciento del total)	542.077,99 euros 33.806,94 euros
	<b>TOTAL AEROGENERADORES</b>	<b>575.884,93 euros</b>
<b>TOTAL 25,15 POR CIENTO DE 19 AEROGENERADORES EN BARRUNDIA</b>		<b>916.658,73 euros</b>

Barrundiako udal barrutian eragina duen eraikuntza kostu osoari, merkatuarekiko erreferentziako 0,70 zuzentze koefizientea aplikatuko zaio. Horrenbestez, eraikuntzaren katastro balio osoa, zeina ezin daitekeen murriztu inolako zuzentze koefizientez, hala nola antzina-tasunekoaz edo erabilerakoaz, ondokoa da:

POLIGONO FISKALA	PARKE EOLIKOA	ERAIKUNTZAREN KATASTRO BALIOA
501	Elgea-Urkillako mendiak	641.661,11 euro

Barrundiako udal barrutian dagoen Elgea-Urkillako mendietako parke eolikoaren katastro balio osoa, bi hauen batura izango da: eraikuntzaren katastro balioa, hemen kalkulatu, gehi lurzoruaen katastro balioa, udal barruti horretarako dagoen hiri ondasun higiezin lurzoruaen eta eraikuntzen Balioespen Txostenean oinarrituz kalkulatu.

## Iragarkiak

### IDAZKARITZA NAGUSIA

6673

**Diputatuen Kontseiluak 2011ko azaroaren 23ko ohiko bilkuran onartutako xedapenen laburpena.**

#### - Foru dekretuak:

##### TOKI ADMINISTRAZIOAREN SAILA

70/2011 Foru dekretua, azaroaren 23ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, onartu egiten dira obra txikiak gauzatzeko 2012ko programaren barruan Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeei dirulaguntzak emateko oinarri-arauak.

71/2011 Foru dekretua, azaroaren 23ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, onartu egiten dira Auzoen arteko Harremanak Sustatzeko 2012ko programaren barruan Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeei dirulaguntzak emateko oinarri-arauak.

##### NEKAZARITZA SAILA

72/2011 Foru dekretua, azaroaren 23ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, aldatu egiten dira nekazaritzako aseguruak kontratatze aldera laguntzak emateko, 2011ko deialdiaren baitan eskaerak aurkezteko epea. Deialdi hori azaroaren 15eko 69/2011 Foru Dekretuaren bidez onartu zen.

##### EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA

73/2011 Foru dekretua, azaroaren 23ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, indargabetu egiten da ekainaren 15eko 29/2010 Foru Dekretua, Musika Arteen Aholku Kontseilua eratzen duena.

#### - Erabakiak:

##### DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

643/2011 Erabakia, azaroaren 23ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, berritu egiten dira foru aldundiak Gizarte Zerbitzuen eta Nekazaritza Sailekin zerikusia duten erakunde eta organismoetan dituen ordezkariak.

644/2011 Erabakia, azaroaren 23ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, onartu egiten da Deportivo Alavés SADekin lankidetzako protokoloa izenpetzea, 2011-2012, 2012-2013, 2013-2014, 2014-2015 eta 2015-2016 denboraldietan zehar zenbait jardura egiteko.

##### GIZARTE ZERBITZUEN SAILA

645/2011 Erabakia, azaroaren 23ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, onartu egiten da, zeinuen mintzairaren interprete zerbitzua eskaintzeko, Gasteizko Udalarekin eta "Arabako Gorrak" Arabako pertsona gorren elkartearekin lankidetzako hitzarmena izenpetzea.

Al coste de construcción total que afecta al término municipal de Barrundia se le aplicará el coeficiente corrector 0,70 de referencia al mercado, con lo que el valor catastral total de construcción, el cual no podrá reducirse por ningún coeficiente corrector como es el de la antigüedad o el uso, es de:

POLÍGONO FISCAL	PARQUE EÓLICO	VALOR CATASTRAL CONSTRUCCIÓN
501	Sierra de Elgea-Urkillak	641.661,11 euros

El valor catastral total del Parque Eólico de la Sierra de Elgea-Urkillak, sito en el término municipal de Barrundia, será la suma del valor catastral de la construcción aquí calculado, más el valor catastral del suelo calculado en base a la Ponencia de Valoración de suelo y construcción de bienes inmuebles urbanos, existente para este término municipal.

## Anuncios

### SECRETARÍA GENERAL

6673

**Extracto de las disposiciones aprobadas por el Consejo de Diputados en sesión ordinaria celebrada el 23 de noviembre de 2011.**

#### - Decretos Forales:

##### DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN LOCAL

Decreto Foral 70/2011, del Consejo de Diputados de 23 de noviembre, que aprueba las bases reguladoras para la concesión de ayudas a las Entidades locales del Territorio Histórico de Álava en el Programa 2012 de ejecución de obras menores.

Decreto Foral 71/2011, del Consejo de Diputados de 23 de noviembre, que aprueba las bases reguladoras para la concesión de ayudas a las Entidades locales del Territorio Histórico de Álava en el Programa 2012 de Promoción de Relaciones Vecinales.

##### DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA

Decreto Foral 72/2011, del Consejo de Diputados de 23 de noviembre, que modifica el plazo de presentación de solicitudes de la convocatoria del año 2011 para la concesión de las ayudas para la contratación de Seguros Agrarios aprobada por Decreto Foral 69/2011, de 15 de noviembre.

##### DEPARTAMENTO DE EUSKERA, CULTURA Y DEPORTE

Decreto Foral 73/2011, del Consejo de Diputados de 23 de noviembre, que deroga el Decreto Foral 29/2010, de 15 de junio, por el que se constituyó el Consejo Asesor de las Artes Musicales.

#### - Acuerdos:

##### DEPARTAMENTO DE DIPUTADO GENERAL

Acuerdo 643/2011, del Consejo de Diputados de 23 de noviembre, que renueva la representación de esta Diputación Foral en diversas Entidades y Organismos relacionados con los Departamentos de Servicios Sociales y Agricultura.

Acuerdo 644/2011, del Consejo de Diputados de 23 de noviembre, que aprueba el Protocolo de colaboración con el Deportivo Alavés, S.A.D. para la realización de determinadas actividades a lo largo de las temporadas 2011-2012, 2012-2013, 2013-2014, 2014-2015 y 2015-2016.

##### DEPARTAMENTO DE SERVICIOS SOCIALES

Acuerdo 645/2011, del Consejo de Diputados de 23 de noviembre, que aprueba la suscripción de un Convenio de colaboración con el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y la Asociación de Personas Sordas de Álava/ Arabako Pertsona Gorren Elkarte "Arabako Gorrak" para la prestación de un servicio de Intérpretes de Lengua de Signos.